

DAVID TELLETXEA (G.B.)

1942/5/30 – 2002/2/20

Xabier

Goizeko bederatzia ziran, otsailak 20, telefonoko txirrin otsak esnatu ninduenean, On Jesus gure eleiz nagusiko organu joleak berri tamalgarria eman zidanean: *David il da* izan ziran bere itzak. Jakiñan gaiñean giñaden sendatu eziñezko gaitzaren jabe zala, bañan ez genuen uste orren laister gugandik alde egingo zuela eta berri ituna nigan jabetu zan, egoera tamalgarri batean utzirik.

Eta aurtengo OARSO aldizkarirako idazlana berari gorazarre bat egin naian izango da, berarekin urte askotan zear artu-eman ugari izan baintuan. Argaitik, bere biziaren kondaira labur bat egingo det, ez berak merezi duen aiñekoa, bañan asmo onez beterik egiña.

Ura nolakoa zan garbi azaldu zan berak egindako lanak eskertu nairik, bai Hueskan eta baita Errenterian ere egin ziraden illeta ospakizunetan.

Hueskakoak San Lorenzo basilizan egin ziran, bertan jendetza ugari izanik: iriko udaletxeko talde guzitako politiko agintariak, alkate jauna buru zutelarik. Aragoiko lurraldeko abestaldetako ordezkariak beren azken agurra egin zioten, Federakuntzako abestaldeak elizkizunean parte arturik. Auek otsaillaren 21garren egunean izan ziran.

Illak ogeita bost, astelena, bere jaioterri Errenterian izan ziran bere illeta elizkizunak. Eleiza jendez betea, eta berari azken agurra ematen berarekin ainbat alditan koroan abesti lanetan elkarrekin izan giñanak, baita Andra Mari koraleko abeslariak ere, auekin askotan abesten baizuen, bere laguntza bear izaten zutenean.

Illeta abestiak errikoiak izandu ziran, denak partaide izan nai baigenduan ekintza artan, bañan bereziki Andra Marikoak, Bach-en kantata bat, Aita Donostiaren eleiz abesti bat eta Uruñuelaren ain ezaguna den *Maitia, nun zira?*-rekin azken agurra egiñaz.

Eta bere illeta elizkizunaren berri laburrak eman ondoren, bere bizi kondairaren zatiak, al dudan geienak, azaldu nai dizkizuet, ez berak merezi duan bezelakoak, bañan bere bizitzako pasadizo batzuek izango dira.

1942.eko maiatzaren 30ean jaiotako Goiko Kaleko 16 zenbakia duan etxean, Martzial eta Isabel aita-amak zitularik. Bere ume denboran ez zan oso atsegiña izan: ume elbarritasun gaixotasun bat izan zuan eta askotan ikusten genduan kalean ume-kotxe luze batean ezarrita. Berak utzi zion ondorenari gogor egin zion, mundu ontako lanari elduaz, ikasketak ere ondo ikasi zituan eta prest egon zan bizitzari aurre egiteko.

Bere gazte denboran, gero bere emazte izango zan Julita Río ezagutu zuan, bañan arek Hueskako Ogasun saillean lan egiten zuan eta berak ere bertako udaletxean.

Informatika zerbitzu saillean arduradun bezela lanpostua arkitu zuan, eta ori zala eta, 1970eko urtarrillean Hueskako irira joan zan, bertan abuztuaren 3an ezkondu al izanik. Ezkontza artatik lau seme izandu zituan, Andoni, David, Aitor eta Jabier, eta berauekin sortu zuan Telletxea-Río sendia Hueskako irian.

Eta emen asi zan, bere sendiko betebeurrak ondo bete ondoren, berak barruan eraman izandu zuan musikaren zaletasunaren ondorioak bere lagun urkoari azaltzen: or gelditzen da



David Mari Tellechea.



"Stella Maris" abesbatza. Abeslari taldea Burgosen.

berak sortutako *Coral de Graus*, or bere Coral Oscenseko partaidetza, or Aragoiko Koru Federakuntzako idazkaritza eta or Espainiako Koru Federakuntzako lendakaritza, beste erakusketa askoren artean.

Auek bere azken urteetan Aragoi aldean egindako lanaren berriak dira, bañan bertara joan artekoak, gure artean egindakoaren berri ere azaldu nai nizuteke.

Urte asko dirala, David bera oso gazte zalarik, Goiko mojetako eleizan aginduz egiten ziran meza batzuetan abeslari talde bat elkartzen giñan: Luis Salaberria (lezoarra), Zezilio Etxeberria, Iñaki Idiazabal, Errapel Bereziartu, Jose Alberto Zapirain eta ni. Talde ontatik Jose Alberto eta ni gelditzen gera, besteak betirako utzi baiginduzen.

Eta emen ere azaltzen zan Daviden doai berezia: abeslari bezela tenore abots gozoa, musikatasunez betea. Bertan abesten genituen abestiaren konponketak bere gain izaten ziran beti, berak egindako abestiak ere abesten genituan, eta ori zala eta, berarekin artu-eman andiak izan nituan.

Berak egindako konposaketari itzak jarri al izan nizkion: *Aldarean Jaun Aundia* eta *Aldare Ortan* (1968), eta 1986an, artu-eman asko izan ondoren, *Maria Magdalenari* ereserkia elkarrekin egin genduan, eta urte artako

Madalen bezperako Salbean lenengo aldiz abestu zan. Era orretan, ondorengoak bere berri izango dute, oso errikoi egin baida abesti au.

1987. urtean, Tolosan egiten dan abesti leiaketarako *Zure ondoan* abestiaren partaide izan nintzan, baita *Belen* eguarri kanta eta *Amonatxo* izenekoarekin ere. Beste lan geiago ere izango ditu eta iduritzen zait ondo bilduak izango diradela.

Bere aolkuak eta laguntza abesti maillan beti izandu nuan, ain apalki eta xamur egiten baizituan bere egintza guztiak.

Eta azkenik, bere Erreterirako maitetasuna garbi azaldu zuan, naiz eta bere bizitzaren erdia bere sendiarekin Aragoien igaro: *Oarso* aldizkari onen lankide izan degu 1963. urtea ezkeror, *Nadie es profeta en su tierra* idazlana aurkeztuaz. Naiz bere bizitza erritik urrun igaro, urte aietan zear bere idazlanak ez dira faltatu urtekari ontan.

Bere azken lana joan zan urtekarian izandu zan, *Rentería turística* izenburuarekin, eta garbi asko azaltzen zuan gure erritik kanpo berataz eta bere irudiatz daukaten irudipena, ainbat gauza esan baidira beragaitik: erri zikiña, ibaiak zatitua, gatazka lurraldea... Bertan leku turistiko batzuek izan leizkela suposatzea ere parregarri izan leike.

Rentería turística au guk ere ez genduke siñistuko, bañan gure errian bertan bear luke Turismo Patronatu bat. Gure errian ikustea merezi duten gauzak badira: etxe istoriko, arma-arriak eta antziñako erriaren berriak. Udaletxeak banatu aal izan ditu gure erriari buruz ainbat liburuxka, bañan gogoan artzekoak dira Daviden azken urteko lanaren arrazoiak.

Beste lan batzuen artean, arenak dira *Goiko kale* izenekoa, 1972an; *La Misa Mayor*, 1974an; *Y el río murió*, 1980an; *Lejos de mi tierra*, 1981ean; *La víspera*, 1987an; *Alameda Blues*, 1990ean; *Tristesse...*, 1997an, *El alma del pueblo*, 1998an; *Rentería, es tu lema...*, 1999an, oso Touringzalea izanik, bere 75 urte betetzea zela eta idatzia. Ikusten dezute-nez, bere lan batzuen izenak bakarrik azaldu dizkizuet eta 1963garren urtea ezkeroztik bere lanak zintzo-zintzo izan ditugu. Luma garbia eta errez ulertzekoa erabilli zuan beti.

Beraren beste oroigarri bat ere azalduko dizutet, neretzat oso erreteriar jatorra danaren ezaugarri baida, naiz askok ez uste izan. Bere eginkizunak zirala eta, ez zuan etortzerik iza-

ten Madalen jaietan, bañan urtero-urtero anizaten genduan, Andra Mari Jasokundearen bezperan, eleiz nagusian egiten dan Salbean eta urrengo eguneko Meza Nagusian, bai abeslari eta bai zuzendari bezela. Nork esan ekintza ortan igaro zan urtean azken aldía izango zala, bera bataiatutako eleizan!

Nere lantxoari amaiera emango diot, azalpen auek egin ondoren. Laburrak dira, eta ez Davidek merezi dituenak bezelakoak, bañan biotzez egiñak dira, ene lagun maitea. Aurten oroigarri berezi bat izango du gure Madalen bezperako Salbeak, zure erri-tarran goratarrea jasoko baidez zeru goi ortan, ziur bainago bertan gure zaindaria eta erreteriarren artean entzungo dezutela gogoz abestuko deguna:

Maria Magdalena gure zaindaria
Kantari datorkizu gaur zure erria
Kantuz egiten dizu bere eskaria
Babestu ta gidatu beti Erretereria.

Agur eta eskerrik asko, David, Egun Aundi-rarte.

A DAVID TELLECHEA, CON CARIÑO, DE SU CORAL VILLA DE GRAUS

Hoy sólo queremos recordar la trayectoria en Graus de David: un músico excelente y mejor persona.

Casi por azar llegó aquí en el año 1987 para hacerse cargo de una coral que prácticamente estaba aún naciendo. Con su dedicación y esfuerzo consiguió sacar adelante a un grupo de gente sin apenas conocimientos musicales pero con muchas ganas de cantar. Más adelante se hizo cargo de la coral de la escuela municipal de música, formando vocalmente e introduciendo en el mundo de la música coral a jóvenes músicos. Jóvenes músicos que se fueron incorporando poco a poco en la Coral de Graus. Confío ciegamente en estos alumnos que, incitados por él, fueron formándose en el mundo del canto y la dirección coral. Años después también se enfrentaría a la dura tarea de enseñar al coro infantil de dicha escuela municipal.

Junto a nuestra Coral "Villa de Graus" nos llevó hasta los doscientos conciertos en casi veinte años de andadura juntos. Como gran músico abarcó un amplio repertorio, que a veces nos costaba montar, pero que con la ilusión de ambas partes, al final, salía adelante. A nuestra coral dedicó años de su vida y magníficos arreglos corales hechos por él mismo, entre otros, la Albada. Muy ciertamente se dijo de este oscense nacido en Rentería: *"canta y siente la Albada mejor que muchos grausinos"*.

Aunque brevemente hemos querido recordar su trayectoria en Graus, no erraremos al decir que su trayectoria ha sido la de todas las personas que hemos pasado bajo su batuta, la de las personas que estamos hoy aquí cantando y de muchas otras que ahora siguen con su vida musical en Zaragoza, Menorca, Huesca,...

Por todo lo que nos has dado, por todo el tiempo que nos has dedicado, por todas las broncas que en más de una ocasión nos hemos merecido, por todos los conciertos juntos, por todo lo que nos has enseñado, por todo lo que nos hemos reído juntos, por todo lo que hemos vivido contigo, por ser siempre así, GRACIAS DAVID.

Coral Villa de Graus

A 3 de marzo de 2002